

HAUTSAK JAN HAU

Nork esango zian
hi,
ikaslerik jatorrena, semerik zintzoena, lagunik
onena
izango hintzenik hauts zuriaren biktima,
lilura faltsuetan murgildurik
ikaslerik txarrena, semerik gaiztoena, lagunik
baztertuena
izatera iritsiko hintzena?

Nork esango zian
medikuak xiringa ipurdian sartzean
nigar egiten zuen umeak
pozoia bere zainetan sartuko zuenik?

Nork esan,
talko hautsei alergia zien mutilak
gizartearen hauts zikina
sudurzuloetan barrena sentituko zuela?

Ez dik erantzunik.
Hasieran beldurri,
gero borondatez,
gerora beharrez,
azkenean gosez.
INFERNURA!

Baina ziur jakin ezak
guregan beti
zeruko lagun hura izango haizela,
nahiz eta pertsona izatetik
ezer ez izatera igaro haizen.

Baina
barkatzen diagu, hoa lasai,
berriz ere
kopiatuko diat azterketa,
arazoei buruz hitzegingo diagu.
Elkartuko gaituk,
hutsegín ezin den zitan. ■